

DBUS-EK EKOLOGIKOAGOAK DIREN LAU AUTOBUS ARTIKULATU **GEHITU DITU BERE FLOTAN**

Ekainaren 2an Dbusek 18 metroko lau autobus artikulatu gehitu ditu bere flotan, eta berehala hasiko dira zerbitzua ematen Donostiako hiri autobusen lineetan.

Autobusak MAN etxeak dira eta Euro 6 teknologia dute, ingurumena gehien errespetatzen duen teknologia, alegia. Dbus da fabrikatzailearen teknologia berri hori, hau da, igorpenak gutxitu eta merkatuko igorpen maila txikienetara jaitea ahalbidetzen duen teknologia daukaten autobusak erosi dituen lehen enpresa.

Autobus horiek sartuta Dbusek bere autobusik zaharrenak ordeztu ditu, donostiarrek gero eta garbiagoak eta irisgarriagoak diren autobusak eduki ditzaten.



Ingurumena errespetatu ez ezik, autobus berriek Konpainiak efizientzia, erosotasun eta segurtasunari dagokienez dituen eskakizunak betetzen dituzte, Dbuseko flotak dituen berrikuntza teknologiko guztiak dituztelako eta %100 irisgarriak direlako.

Autobus berriak energetikoki efizienteagoak dira, ordeztuko dituzten aurreko autobusen baino %5 inguru energia gutxiago kontsumituko dutelako.

Autobus berriekin Euro 1 motorra duten autobusak zirkulaziotik aterako dira eta igorpen maila nabarmen murriztuko da. Partikula kutsatzaileen kasuan murrizketa %97koa izango da.

M3 ASTUNAK (gr/kWh)

	CO	HC	NOx	PM
Euro I	4,50	1,10	8,00	0,36
Euro VI	1,50	0,13	0,40	0,01
Murrizketa	%67	%88	%95	%97

Autobusak MAN etxeak fabrikatu ditu Polonian, Poznan duen lantegian, eta ondoren Carrocerias Burillok pertsonalizatu ditu Dbusen irizpideei jarraituta, erabiltzaileen zein Dbuseko gidarien premia berezietara egokituta.

Ibilgailuek 320 CV-ko Euro 6 motorra dute eta ZF ECOLIFE abiadura kutxa automatiko eta efizientea eta, horrez gain, ABS + ASR frenaketaren segurtasunerako sistemak eta Thermoking aire girogailua ere bai.

Irisgarriak ere badira, eta zoru baxua eta sartzeko arrapala automatikoa dute gurpil aulkian doazen pertsonentzat eta haur kotxeetarako. Autobusek, halaber, gurpil aulki birentzako lekua dute eta makurtzeko sistema bat ere bai, ibilgailuaren zorua eta geltokia altuera berean jartzeko, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak errazago sar daitezten.

Mugikortasuna murriztuta dutenentzako eserlekuak ere badituzte, eta autobusen barrualdean zein kanpoaldean itsuentzako eta ikusmena murriztua dutenentzako informazio sistema akustikoak ere bai; beraz, autobus berriak Dbusek duen soinu bidezko informazio sisteman integratuta egongo lirateke.



Autobusek berritasunak dituzte erosotasunari dagokionez, esaterako artikulazio hauspo zeharrargia, sabai leiho kristaldunak eta LED argiak barrualdean, espazioa argitsuago eta atseginago eginez.

Erosketa berri honekin eta flota etengabe berrituta, Dbusek sendotu egiten du bere autobusak ahalik eta erosoenak, seguruenak eta iraunkorrenak izan daitezen ibilgailuen barruan teknologia berriak erabiltzearen alde azken urteotan egiten ari den apustu garrantzitsua.